

SENA BEHAR DA

Sena gabeko zakurra baino amorragarriagorik ezer gutxi da. Ezaguerarik ez duen abereak sena ona behar du izan. Senarik ez duen ehiz-zakurra zertarako du ehiztariak? Senarik ez duen arzakurra zertarako du artzaiak? Kanpokoia salatu behar du atalondan dagoen kate-zakurrak. Hanka hotsa eta haize hotsa, etxekoa eta arrotza bereizten eta ezagutzen ez dituen senarik gabeko zakur txorora zertarako duzu etxe ondoan?

Badirudi euskaldunok ezaguera eta sena, biak, galdu ditugula. Ez ditugu bereizten lagunak eta etsaiak, etxekoak eta arrotzak.

Iritzi, joera, eta jokabide okerrak salatu behar dira, noski. Salatu baino gehiago berorien okerra eta ustela agertu eta ikusarazi behar dira. Ez da aski okerrak direla esatea, zergatik diren oker azaldu eta arazoitu egin behar da. Batentzat okerrak direnak bestearentzat zuzenak bait dira.

Iritziak eta jokabideak onar eta gaitzets, neur eta sala daitezke. Hor ez da okerrik. Ondo egiten jakinez gero medeada besterik ez dakar horrek. Horretarako, ordea, bide egokiak behar dira.

Gaurregun ezin daiteke gure artean zenbait iritzi plazara. Debekaturik da. Plazaratzeko eskubiderik ez duten iritziak eta jokabideak ezin daitezke nolanañi agerian gaitzets, sala eta dantza. Bere iritziak eta jokabideak arazoitu eta zuriut agerian erantzerik ez duena ezin daitezke nolanañi zirika. Are gutxiago salatzaileak arriskurik jokatzen ez duenaren.

Arriskutzen ere jakin behar dugu, ordea. Nolerabait, gure iritzien, asmoen, helburuen eta jokabideen berri eman beharko diogu elkarrri. Hutsiegiak, okerrak, zabarkeriak eta abar salatu ere egin beharko dira. Baina senaz eta kontuz, jakina. Edozonerri edo edozonerri zaunkaka ari den senarik gabeko zakur ergel eta txororaen antzera ez gaitzela zalapartaka ihardun. Beti ere, zaunkari baino argiamele izan hobe dugu gure egoeran.

Iritziak eta jokabideak azter eta maxia badaitezke ere iritzi eta jokabide hoiñen jabeak ezin daitezke agerian nabarmen erazi gure egoeran. «Bekatuia sala daiteke, bekataria ez ordea» esan ohi zen. Are gutxiago bekataria ustekoa zigortua izan daitekeena. Errazegi izendatzen dugu jendea. Non-dik nora dabilen errazegi esaten eta idazten dugu.

Halako ikastola, halako erakunde, halako talde, halako pertsona erraz haizaten eta dantzatzen dugu. Ahotan, irratian eta aldizkarietan zenbait izenak eta arrastoak emateak kalte handiak ekar ditzake.

Haur baten ipuin bat zela eta ez zela ikaragarriko astindua eman zitzaion Gipuzkoako Ikastola bati zenbait aldizkaritan. Behin eta berriz, suma ahalak idatzi ziren. Zahar batek ikus ditzakeen sorgin guztiak ikusi ziren.

Jakingo ote du zenbat kalte egin zuten? Hura guztia bildurik, erderaturik eta gorderik da. Diru-laguntza ukatzeko aitzakitzat eragiltzen da gaurregun.

Adibide bat besterik ez da. Milaka gertatu dira batetik eta bestetik. Garbi denak bota dezala lehen harria.

Ez da aholku aildreba, honako hau, gure egoeran: «Norbaitek zerbaitek gaizki egiten duenean bakarkaka esan jcaizozu. Jaramonik egiten ez badizu, zoaz bizpahiru lagunekin. Halere zuzentzen ez baldin bada esan ezazu batzarrean».

Etxeko kontuak etxean gordetzea izaten da onena. Hauzokoak, erruki itxura guztiekin, parra besterik ez digu egingo. Para besterik ez bada, gaitzertzi!

Ika-mika harrotzen ditugun hautsak noraino irits daitezkeen oharitzen ote gara? Zeinen onerako? Gure kaltetarako noski.

Beroaren beroaz non gauden eta nola garen ahantzi egiten zaigu. Izan dezagun sena piska bat.

J E N D E A

«Bai, hor ari dira gazte batzuk eginahaletan. Baina jendeak, zer egiten du jendeak? Ezer ez. Zai dago, besteek zer egingo...».

Honelakoak sarri entzuten dira. Eta ez dira harritzekoak. «Jendea» egiten duena, ez dago konparatzerik, beste haiek egiten dutenarekin. Baina ez da egia, jendeak ez diela ezer egiten. Jendea, bestetik ez bada ere, eboluzio handi bat ari da egiten.

Azken urteotan mugimendu izugarria sortu da Euskal Herrian. Jendea ere barru-barrutik mugiarazi duen mugimendua. Egin ere asko egin da. Baina egin den eta egiten dena baino ere haundiagoa, jendearen egin nahia da.

Hori oso positiboa da. Buru-belarri ekintzan dabilen jende asko keja da, laguntzasun gutiegi omen duelako. Gauzak ez dabilta behar bezala.

Ikastola aurrera atera nahiz dabiltzan, sarri entzungo diezu: «berriketa asko, baina zerbaitek egiteko orduan, inor ez da agiri». Eta egia da: jende asko langile hobe da mingainaz, bestela baino.

Aldizkariak atera behar dituztenek, berdin esango dizute: «lankideak behar ditugu, ez dugu behar haina jenderik, dirua falta zaigu, itota gabilta».

Argitaldrietan lantu bera: «bati lan bat enkargatu, eta balez esaten dizu, baina gero ez du egiten. Edo halako egunetarako agindu, eta urtebete gerago ekartzan badizu, gustora halare». Eta abar.

Alde guzietan problemak. Ezinak. Organizazio falta. Zeregin gehiegi, zeinek eginik ez. Fraksoak.

Politikoei keja berdinak entzuten zaizkie: «konzeptu eta ekintz bide politikoa garbik ez da; bakoitza bere bideetik ari da; ez gaudere prestaturik, etorriko diren egunetarako».

Lan arazoetan dabilenak: «langile kontzientzia garbik ez da; jendeak ez du buruan irabazi lasaia besterik; langileak ez ditu ezagutzen eta ez ditu haintzatuak hartzen bere eginkizun politikoak».

Gauzak, egia da, ez dira nahi bezala egiten, ahal bezala baino. Eta ahal denxoa, denxoa guti da.

Eta, halare, Euskal Herria itxuraidaturik dago. Jendea. Zenbait urte kanpoan egin eta ailegatzen denak, ezin die sinetsi bere begiei eta belarriei.

Jendearen interesak, abestiak, konbertsazioak. Dena. Harrigarria da. Euskal herri berri bat agertarazten dizu denak. Edozoin huskeriatan sumatzen da hori. Musikalazetasunean, festa giroan, lan gauzetan. Herbestean gauzak nola dabilzan jakin nahi da. Nola doa Greziako hori? Aho guzietan Portugal. Denean nabari duzu, ikaragarriko kanbioa egin dela. Eta hori ia ez da hiri haundietako gauza bakarrik. Herriak eta hauzoetan ez da bestela. Eta zaharrak ere. Ez gazteak bakarrik. Haurrak nola hezi. Ertiño gorabeherak nola jukzatu. Zertan ote diren Europako beste sozialistak. «Zer diferentzia dago sozialismoaren eta komunismoaren artean?», galdetzen dizu etxekoandre batek. «Politikan nik ez dakit ezer, baina...», esaten dizu langile batek. Eta «baina» luze eta oso politikoa bat kontatzen dizu, munduko zentzu hobereaz.

Egia da, eta ez dago zergatik ukatu, berrogei eta hamar mila gauza negargarri aurkitzen dela.

Baina zenbat gauza pozgarri gehiago aurkitzen den, apenas esan liteke, esan ere. Eta pozgarria, benetan pozgarria, ez dira euskal afari sonatu horiek, eta mendi eta parajeak, eta nik ez dakit zer gehiago, eta sagardoa. Pozgarriena jendea da. Jende tristatu eta kejoso horixe: ekintzaleak. Eta beste jende guziaz ezer egiten ez omen duena.

Beharbada ekintzaleek berek ez dute ikusten, zenbat egiten ari diren. Eta zenbat kostatzen zaien eta nekutzen diren bakarrik, ikusten dute. Egunoro eman beharrezko pausotoak, beharbada, ez die uzten ikusten, pausoka-pausoka egin duten bide luzea. Bete beren inguruaz bururrukan, agian ez dute ikusten, inguru hori nola poliki-poliki arras aldarazi duten.

Ez da harritzekoa, zerbaitek egiten —eta hobeto egin nahita— dabilen jendea, kexu bada. Jendeak ez gehiago laguntzea ere ez da oso harriarria. Idealismo asko behar da, Euskal Herrian, ezertan aritzeko. Eta idealismoaz gainera, zer nola egin asmatzen ere, zaila da. Zerbaitek egin nahi lukeen jende askok, ez daki zer egin, nola egin. Bere mila buru-hausteren artean ez daki nola burubidatu. Izan ere, denak ezin izan litezke «liberatuak». Egunoro zortzi, hamar, hamabi ordu, lanean sartu beharra dago. Bizit denak jan eta edan ere egiten du. Ezkundu ohi da. Bizitza bat erosi eta jarri beharra dago. Zorrak. Euskal Herriko bizimoduak bere eskakizunak ditu: taberna, afariak, tertuliak, eta abar. Eta alferrik eskatuko zaio euskaldunari monje asketa baten antzeko bizimodua, hori dena utzita. Guzi hori eta «kontsumismoa» eta jendearen axal-keria eta axolagabezia kondentzea da errazena. Denei erabateko militantismoa eskatzea da errazena. Baina irrealista da.

Begira dezagun, gehiengo nahasi hau ere, egunoroko katramiletako gizon hori, zenbat kantiatu den. Ez du gauza haundirik egingo. Ez da beti saltsan ibiliko. Baina Euskal Herrian gauza gehiegi gertatu da azken urteotan. Eta gizon hori ere kezka bete da. Atxikitasun eta sinpatia batzuk sortu zaizkio. Politikaz arduratzen da. Zerbaitek egin nahi luke. Zerbaitek gerta dadila, behintzat, nahi luke. Eta aprobetxatu beharra dago gizon hori.

Orain artekoa, ekintzale osoen denbora izan da. Militantzia garaia. Euskal Herria biztu dute. Bero-berotu dute. Ekintzale osoa, hemendik aurrera ere, behar-beharrezkoa izango da. Baina



hainbeste lanen fruitua ere bildu beharra dago. Ekintzale osoak, berak bezala ikusi nahi lituzke beste denak ere, sutan sartuta. Erraz pentsatuko du, epelago iruditzen zaizkion guzi horiek, ez dutela deus balio. Bibolina jotzen ari direla. Eta pikutara bidualteko tentazioa izango du. Aspertuta. Edo nazkatuta. Edo neka-nekatuta.

Minoria ekintzale sutsu batzuekin BAKARRIK segitzeak, ordea, ez du irabazirik. Iratzarri eta kezka bete den jendetaria guzi hori zabartuaz, orientazio-rik eta organizatorik gabe utziaz, ez dugu ezer irabazten. Aitzitik, hori egiten duen euskal ekintzalea, beste batentzat lurra lantzen ari da. Beste batek bilduko du, nekez eta odoloz berak ere in duen uzta.

Gehien-gehiengoa osatzen duten jende-samaldak, ekintzaleak ezin ditzake abandonatu. Gizatalde xehe guzi horiei ere —gizabare, esango zukeen Orixe— irtenbideak eskaini behar zaizkie. Posibilitateak iriki. Zer egin dezaketen erakutsi. Jende oldeak, masak, indar ikaragarria du, Portugalen bertan ere ikusten ari garenez. Baina, indarririk izan dezaten, lehenengo, gizaldrak, masak, indar bat bihurtu behar dira.

Organizatu egin behar dira, hortakoz.

JOXE AZURMENDI

Zeruko ARGIA

EUSKALDUN ASTEROKOA

UGAL ETA ZABAL
EUSKALDUNON ASTEKARIA

Izen-deiturak _____
Kalea _____ Zenbakia _____
Herria _____ (Prob.) _____

Zeruko ARGIA

JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Araba golko Keputxinoek.
Burlada, Kale Nagusia 101
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Fexizta Iturriza

ARPIDE SARIA:
3arruan 400 pezeta
Korreo batasunetako herrietan 620 pezeta
Atzerrietako beste herrietan 460 pezeta
Airez Aldez aurreratik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkole:
«Gráficas Navasas»
A. Adoain, 1. IRUINEA
D.L.: NA. 80-1963